



**KLUBEN ARTEKO
VI NAZIONALA**

OINARRIAK

Amezketak, 2019ko urria



PILOTABIZI Pelotazaleen Elkarteak, seigarren urtez, **Euskal Herriko klub en arteko Torneo Nazionala** (aurrerantzean **NAZIONALA**) antolatzen du. 2019ko abenduaren 7a eta 2020ko martxoaren 29a artean jokatu da eta **oinarri** hauek izango ditu.

1. **VI Nazionalen** parte hartzea **IREKIA** da eta izena parte hartu nahi duen edozein klubak eman lezake. Horretarako ezarritako diru kopurua ordaindu eta **HITZARMENA** sinatu beharko du. Izena emandako klub en onarpena **PILOTABIZI Pelotazaleen Elkarteak** emango du.

2. **NAZIONALAK** ondorengo ezaugarri eta betebeharrak izango ditu:

I. Kanporaketa bakoitza **hiru partidutara** jokatu da:

- a. **4 1/2ko** partida **eskuz banaka**.
- b. **Eskuz banaka** frontoi osoan.
- c. **Binaka** partida frontoi osoan.

II. Kategori bakarra egongo da, absolutoa. Klub bakoitzak erabakiko du zein kategoritako pilotarik ordezkatu du ten, kadete mailaz goikoak izanez gero.

III. **Banakako** partiduak **18ra** jokatu dira, **binakakoak 22ra**.

IV. Partidu gehien irabazten dituen klubak irabaziko du kanporaketa.

V. Aurreko urteko ranking-aren arabera jarriko dira final laurdenetako eta final zortziren etako I eta II faseak eta aurre fasea, behar izanez gero, jokatu dituzten klubak. **Aurre Faseko** partiduak **kanporaketa bakarrera** jokatu dira, zozketa bidez aukeratu den klubaren frontoian.

VI. **Final zortziren etako** I eta II fasetako partiduak Idiazabalgo IGARONDO frontoian jokatu dira. **Final laurdenetako, Finalaurreko eta finaleko** partiduak Zumarragako **BELOKI** frontoian jokatu dira.

3. Parte hartzen duten klub guztiek sinatu beharko dute **klub en arteko VI NAZIONALerako HITZARMENA**.

4. Torneoaren garapenerako behar den edozein arlo hemen biltzen diren Oinarri hauetan ez baldin badago, **ARAUDIAN** biltzen direnak aplikatu dira.



EGUTEGIA

Finalaurrekoa	Finala
Martxoak 7/8	Martxoak 28/29
Martxoak 14/15	

Beste faseetarako egunak izena eman eta onartuak diren klubaren kopuruaren arabera jarriko dira.

SARIAK

Sailkapena	Saria €	Bestelakoak
Aurre fasean kanporatuak	200€	
Final zortzirenetan kanp. (I fas.)	300€	
Final zortzirenetan kanp. (II fas.)	350 €	
Final laurdenetan kanporatuak	400€	
4. Klasifikatuak	900€	
3. Klasifikatuak	1.200€	Txapeldunaren aurka aurrefinaletan galdutako kluba izango da 3. klasifikatua.
AZPI TXAPELDUNAK	1.500€	Klubarentzat kopa, pilotarientzat koparen erreplika
TXAPELDUNAK	2.500€	Txapela, 4 pilotarientzat. Klubarentzat kopa, pilotarientzat koparen erreplika. Gerriko gorria eta urdin bana 4 pilotarientzat.